

SARRERA

Begiekin Aditu Nazazu

Oihana Garro Larrañaga &
Concepción Elorza Ibáñez de Gauna

BAN hitzaldiak

EHUko Arte Ederren Fakultatean, 2008–2018 urteen bitartean, Begiekin Aditu Nazazu/BAN izenburupean hitzaldi eta lantegi batzuk egin ziren. Urtean bi alditan egiten ziren hitzaldi eta lantegi horiek Concepción Elorza eta Oihana Garrok, Arte Ederretako irakasle garenok, antolatzen genituen.

BAN egitasmoaren helburu nagusia artearen ezagutzan sakontzea zen, sakontze horren bitartez Arte Ederren Fakultateko ikasleak begirada porotsu batean trebatu nahi ziren. Ohiko begirada modu hertsia astindu eta bestelako zentzumenak ere kontuan izaten dituen begirada, *Begiekin Aditu Nazazu* aukeratutako izenburuak adierazten duen bezala.

Geneviève Cadieux artista quebecarraren lan baten izenburua da *Hear me with your eyes* (1989), Juana Inés de la Cruz poetaren *Óyeme con los ojos* (1692) esaldia berrerabiltzen duena. Cadieuxen instalazioan irudiak erabiltzen dira subjektuaren eraikuntzan parte hartzen duten era askotako inplikazioak azalertzeko, erabilitako irudiak harritu egiten dira eta harritzeaz batera haiekiko distantzia bat ematen da. Distantziak balioztatzen du, Chantal Maillard-ek dioen bezala,

errealitatearen bestelako ezagutza bat, irudiaren ezintasuna eta beharra, neurri berean, aldarrikatzen dituena.

Begiekin Aditu Nazazu esaldia interesgarria iruditzen zaigu begiradari uko egin gabe eta arraroa suertatzen zaigun begi-belarri bateratzearen bitartez, ohiko begirada moduen hegemonia zalantzan jartzen delako. Errealitatearen pertzepzioa zentzumenek elkarrekin eragitean gertatzen da, eta irudi bitartez lan egiten denean ere (Cadieuxen instalazioan kasu) gorputza bere zentzumen guztiekin, nahitaez, erabiltzen da.

BAN ekimenak, tituluari kasu eginez, Arte Ederren Fakultatean errealitatearekiko bestelako gerturatze moduak plazaratu eta ezagutarazi nahi zituen, eta horretarako hainbat praktika artistikotan jarri zen arreta. Hitzaldi eta lantegietan gonbidatutako artistek beren lan eta esperientziari buruz hitz egiten zuten, proiektu konkretu bat ardatz hartuta lan-ibilbidearen une jakin batzuk aztertzen zituzten. Topaketa hauek zirela eta, zenbait ekoizpen artistiko sakonago ezagutzeko aukera izan genuen.

Ikasleek arte-prozesuen ezagutza zehatza izatea garrantzitsua iruditzen zitzaigulako abiatu genuen ekimena. Klaseetan ohikoa da adibide desberdinekin artisten lan-prozesuetara hurbiltzea, baina askotan arazoak izaten ditugu prozesuari buruz artistak berak esandakoak aurkitzeko orduan, zer esanik ez, artista garaikideen lanei buruzkoak eta euskaraz nahi ditugunean. Horregatik, klaseetan falta izan zaigun lan material hori solasaldietan sortu nahi izan genuen. Hala, berariaz eskatzen genien gonbidatutako artistei beren lan-prozesuei buruz xehetasunez hitz egiteko; prozesuen nondik norakoak lehenengo pertsona inplikatu baten bitartez ezagutu nahi genituen: aurretiko faseetako planteamendu kontzeptualak, lan-prozesuetan emandako biraketak, garapen material eta gertaerak, erakusteko moduak, etab.

Artearen berariazkotasunean jartzen zen arreta, eta nola artejakintza berariazko horrek jasotzen dituen bere barnean egiteko modu asko. Txomin Badiola artistak dio artea existitzen dela, garai bateko arazo partekatuen aurrean modu singularrean erreakzionatzen duen artista dagoelako. Horregatik, uste da parte hartutako artista guztien artean antzeman genezakeen amankomuneko irizpide garrantzitsuena zera dela, garaian gertatzen diren egoera ezberdinekiko agertzen duten jarrera arretatsua.

Lan denetan aurkitzen da testuinguruarekiko inplikazio bat, baina lan bakoitzean modu ezberdinean gauzatzen da eta dimentsio desberdinak ukitzen ditu. Bada, horregatik, garaiarekiko duten jarrera arretatsuz haratago, zaila da artista guztien artean ordenamendu edo klasifikaziorik egitea. Argi geratu da erantzunetan lanarekiko behar edo irrika ezberdinak daudela eta lan guztiak laburbiltzeko formula zehatzik ez dagoela. Landutako proiektuak ezin ditugu osoan kosmologia edo talde konkretu batzuetan sartu, eta horrek agerian uzten du garaiko arte egitearen dibertsitatea, baita libertatea ere. Testuinguru konplexuari ematen zaizkion erantzun multipleak adieraztea besterik ez zaigu geratzen, dibergentzia da ezaugarria, eta erantzun dibergente ezberdinen arteko bateratzeak ematen digu garaiazen marrazki aberats eta ñabarduraz betea.

Gure ustez, beharrezkoa da aurkezpen honetan zehaztea programazioa pentsatzeko orduan arreta berezia eskaini geniola hurbilean lan egiten duten artista garaikideei, eta konkretuki, emakumeei. Hortaz, hauek dira zehatz-mehatz 10 urtez BANen edizioetan parte hartu zuten artista, talde edo egitasmoak: Lara Almarcegui (Zaragoza, 1972); Joan Morey (Mallorca, 1972); Fernando Sánchez Castillo (Madril, 1970); Carlos Pazos (Bartzelona, 1949); Saioa Olmo (Bilbo, 1976); Eulalia Valldosera (Bartzelona, 1963); Carles Congost (Olot, 1970); Txuspo Poyo (Altsasu, 1963); Jakob Jakobsen (1965, Copenhage); Esther Ferrer (Donostia, 1937); Jordi Claramonte (Villarreal, 1969); Iñaki Garmendia (Ordizia, 1972); Elena Asins (Madril, 1940); Xabier Arakistain (Madril, 1966); Pro-forma: Txomin Badiola (Bilbo, 1975),

Jon Mikel Euba (Bilbo, 1967) eta Sergio Prego (1969); Erreakzioa: Azucena Vieites (Hernani, 1967) eta Estibaliz Sadaba (Bilbo, 1963); Sra. Polaroiska: Alaitz Arenzana (Bilbo, 1977) eta Maria Ibarretxe (Bilbo, 1976); Iratxe Jaio (Markina-Xemein, 1976) eta Klaas van Gorkum (Delft, Herbehereak, 1975); Beltzuria: Ixiar Rozas (Lasarte-Oria, 1972) eta Maite Arroitauregui (Eibar, 1977); Bulegoa Z/B: Miren Jaio (Bermeo, 1968) eta Leire Vergara (Bilbo, 1973); Manu Arregui (Santander, 1970); Santiago Cirugeda (Sevilla, 1971); Rogelio López Cuenca (Nerja, 1959); Democracia Kolektiboa: Pablo España (Madril, 1970); Eugenio Ampudia (Melgar, Valladolid, 1958); Dora García (Valladolid, 1965), eta María Ruido ([Pidre [Xinzo de Limia]], Orense, 1967).

BAN liburua

Aurkezten den liburua aurrez azaldutako hitzaldi eta lantegietan izandako esperientzien jarraipen bat da, gertatutakoa erabat galdu ez dadin pentsatutako lana. Liburua BAN hitzaldien jarraipen bat bezala ulertzen badugu ere, ez da haien errepikapen edo erreprodukzio zehatza. Hitzaldietan azaldutakoa testu idatzira pasatzeko orduan, eta kontuan harturik testuak eduki behar zuen izaera didaktikoa, hori nola egin zitekeen pentsatu eta erabaki behar izan zen.

Batetik, parte hartutako artista guzti-guztiekin batera lan egin ezin zitekeelako, liburua osatzeko artista batzuk aukeratu genituen. Aukeratutako artistak guztira hamar izan dira eta bakoitzari, proiektu bakar batean fokuratzeko eskaria egin zitzaion. Beraz, hurrengoak dira, liburuan azaltzen diren proiektu eta artistak: *Ordainsaririk gabe maitatu* (2005) Manu Arreguirena, *Autorretratu denboran* (1981etik prozesuan dagoena) Esther Ferrerrena, *The Beggar 's Opera* (2007) Dora Garcíaarena, *Errendizioa* (2023tik egite-prozesuan dagoena) Iratxe Jaio & Klaas van Gorkum artistena, *Paradisua arrotzena da* (1999-2024) Rogelio López Cuencarena, *Baina zu... zu al zara? Ez, ni naiz bere...* (2003) Sra. Polaroiskarena, *Passenger. 50 segundo bertikalean* (2006) Txuspo Poyorena eta *ElectroClass* (2011) María Ruidorena.

Bestalde, esan bezala, iraganeko hitzaldien transkripzioa zuzenean ez egitea erabaki zen, artxiboak eskuragarri genituen arren, uste baita hitzaldien hitzez hitzeko erreprodukzioa eginez gero sortuko zen testua ez zatekeela formatu berriarentzat egokia izango. Horregatik, aukeratutako hamar artistekin kontaktuan jarri ginen berriro liburu honen inguruan lan egiteko eta bakoitzari proiektuaren gaineko galdera sorta bat planteatu genion. Galderen helburua, batetik, hitzaldien nolabaiteko erresonantzia bat jasotzea zen, baina, iraganean gertatutakoa erreproduzitu ezin daitekeela onartuaz, zentzugabea zatekeela pentsatuaz, eduki berdinari gerturatzeko modu berri bat eraiki nahi izan genion. Asmoa zen, liburuan, askoz ere modu laburrago eta argiagoan biltzea hitzaldi-zikloan azaltzen ziren zenbait eduki, eta horretarako artistei 12 galdera egin genizkien: artearen berriaztasunari buruz, proiektuen hasierako pausoen inguruan, proiektuen berezitasun teknologikoen inguruan, proiektuen bilakaera prozesualaren gainean, testuinguruarekiko inplikazioari buruz, proiektuek bestelako lan batzuekin dituzten loturen inguruan, eta, galdera orokorrek eratortzen dituzten trabak gogoan hartuta, Arte Garaikidearen eta Arte Ederren fakultatearen osasun-egoeraren gainean galdegin zitzaien. Proposatutakoari artista batzuek modu zehatzean erantzun diote, beste batzuek zenbait galderari ez erantzutea erabaki dute eta gutxi batzuek beren erara berrantolatatu dituzte planteatutako galderak, erantzuteko modu narratiboago bat eraikiaz. Orobat, galderen erantzunak kasu batzuetan askoz zehatzago eta zabalago eman dira, eta beste batzuetan sintetikoago eta laburrago. Erantzunen eskaera egiteko orduan, luzapena eta moduak ez zehaztearen hautua egin genuen eta, horregatik, kontenplatu zen erantzunetan dibertsitate hori ager zitekeela. Horrela suertatu dela egiaztatzean, erantzuteko modu askotarikoei ongietorria eta balioa eman zaie. Heterogeneotasuna nagusitzen da eta hori gure garaiko zeinu bat dela kontsideratzen da.

Galderen erantzunarekin batera, artistei eskutitz bat idazteko ere eskatu genien. Eskutitzak zuzenean *arte ederretako ikasle bati* zuzendutakoa izan behar zuen eta artistak aukeratzen zuen idatzi edo ez. Badakigu artearen bidea korapilatsua dela

eta bide horretan lagundua sentitzea funtsezkoa iruditzen zaigu; gertutasun eta enpatiatik ikasleari hitz egitea zen idazki horren fedea. Era berean, ikaslearen profila modu abstraktuan asmatzeak dakarren arrarotasuna ezin dugu alboratu, eta Dora Garciak bere eskutitzean dioen bezala, «inork eskatu ez duen aholkurik ematea baino gauza okerragorik ez dago». Beste behin, aurkezpenaren hasieran aipatutako ideiarda bueltatuaz, esango dugu testu horien ezintasuna eta beharra, neurri berean, aldarrikatzen ditugula. Idatzi diren eskutitzek liburuari bestelako atmosfera bat eskaintzen diote eta proposamena aberastu egiten dute. Bai elkarrizketa eta bai eskutitzak proiektuaren inguruko irudi batekin laguntzen dira.

Liburuak artearekiko eta munduarekiko konpromisozko zenbait jarrera jasotzen ditu, interesgune ezberdinak azpimarratzen dituzten jarrerak eta berariazko arte-ibilbide ezberdinekin identifika daitezkeenak. Zentzu horretan, liburuan azaldutako proiektu zehatzak, beste artista batzuek egindako proiektuen lotune ere badira.

Horrela, lehen aipatu den bezala, batetik, hitzaldietan ikasgelan faltan sumatzen genuen material bat sortzen saiatu ginen, hain zuzen ere, artisten prozesuetan ardatzen zena, hurbileko artistei, ibilbide laburrakoei eta emakumeei arreta berezia jarriaz. Bestetik, liburuaren bitartez eta deskribatu dugun egiteko moduaz, hitzaldietan bizitako esperientzia aberasgarriaren aztarna bat biltzen saiatu gara, han entzundako testigantzak ahanzturan gal ez daitezen.

Jakin badakigu liburuaren formulak —nahiz eta artistengandik jaso ditugun erantzunak interesgarriak diren— ez duela lortzen hitzaldietan esperimintatutakoaren handitasuna jasotzea. Baina era berean, uste dugu, liburuak gertatutakoaren zertzeladak eskaintzen dizkigula, hurbilketa konkretu bat. Horrela, hasierako BAN hitzaldi eta lantegien programazioaren bidez ez ezik, argitalpen honen bidez ere, ikasleari artearen konplexutasuna eta aberastasuna ulertzeko tresnak eskaini nahi izan dizkiogu.

Zentzu zabalagoan, unibertitateko gainerako komunitateari eta Arte Garaikidearen bilakaeran interesa duen pertsonari ere eskaini nahi diogu lan hau.

Orain BAN prozesu osoa euskara hutsean zabaltzen duen argitalpen bat daukagu esku artean, eta horrela euskaraz egindako arte-argiltapenari balioa ematen zaio; beste diziplina batzuetan gertatzen den moduan, Arte Garaikidearen inguruan euskaraz idatzitako berariazko materiala urriegia baita oraindik.

Ondorengo irakurketekin harremanetan dauden ohar batzuk

Lehen aipatu dugun parte-hartzaileen arteko posizio-aniztasuna nabaria bada ere, ondorengo lerroetan interesgarriak iruditzen zaizkigun zenbait elkargune azaldu nahi dira, baliagarria da eta, zailtasunak zailtasun, horretan saiatzea.

Horrela, interesgarria da konturatzea liburu honetan parte hartzen duten artistek hitzaren anbiguotasuna, aberastasuna eta itzulezintasuna babesten dituztela hitzaren tiraniaren aurrean. Hitza «behin betikoa eta ukaezina» (López Cuenca, 42. or.) itzuli, esan, ulertu eta, azken finean, pentsa daitekeenaren mugak zehazten dituen dago tiraniatik gertu. Baina, alderantziz, hitzak bere mugak ere ezagutzen dituen haratago begiratzera animatzen gaitu, hau da, eremuz kanpo dagoena ere irakurtzera (Ruido), poesiaren isiluneak antzematera (García).

Batzuentzat, hitza proiektu baten materiala izan liteke, adibidez testu-lokuzio formatu bat (Arregui), behinik behin sormen-prozesuan artistak subkontzientearen, desiraren, kontu intimoen funtzioak lanean jartzen dituen, hitzetan jasotzeko nekezak direnak, hau da, norberarentzat eta are gehiago publikoan erakusteko pentsamendu logikoa bihurtzeko zailtasunak dituztenak (Arregui). Beraz, liburuko artista batzuek logozentrismoari kritika bat egiten diote eta hitzaren izaera mugatua adierazten dute, hitzak ordena patriarkalarekin daukan

zuzeneko loturagatik. Beste batzuek, aldiz, hizkuntza ikerketa-iturri pribilegiatutzat jotzen dute, baina betiere, aurrez esan bezala, lehengo planoan kontsideratua izateko hitzak barneko misterioari eutsi behar diola adierazita (Arregui).

Kuriosoa da nola bi errealtate —irudiaren boterea eta hitzaren beharra— agertzen diren BAN gure proposamenean. Liburuko elkarrizketetan argi eta garbi aipatzen da mundua arretaz behatu behar dugula, irudiz eta hitzez beteriko errealtatea aintzat hartu eta eraikigarria den distantzia bat sortu. Distantzia horrek baliatuko duelako harriduraz betetako irudi edo hitz berria.

Proiektuetan ikusleak duen garrantziari dagokionez, artista gehienak bat datoz eta azpimarratzen dute oso garrantzitsua dela egindako lanek ikuslea inplikatzeko. Hala ere, proiektu bakoitzak inplikazio horrekiko hautemate ezberdinak ditu eta *bestearekin*, *ikuslearekin*, sortzen diren lotura-estrategiak askotarikoak dira. Ohikoa da, horri dagokionez, ikusleari aurrez dakienaren inguruko zalantzak sorraraztea, jasotako ideiak alde batera uztearen jarrera bultzatzea eta bestelako aukera irekiago batzuekiko harrera sustatzea.

Testuinguru horretan, agerikoa da lana materializatzeko artistek erabilitako tekniken aniztasuna: ikus-entzunezkoak, 3D animazioa, 16 mm-ko zinema, argazkilari profesionalen ateratako nortasun-argazkiak, argitalpenak, ikastaroak, lantegiak, kongresuak edo mintegi akademikoak, «elementu» bizi bat txertatzea —fikziozko pertsonaia dena— performance batean, edo pintura beraren hiru bertsio ezberdinen inguruko ikerketa. Dena den, teknika ezberdinez haratago, esan genezake proiektuen aurrepultsio guztietan artistek ikerketa-nahi bat dutela, eta ikerketa hauek artearen berariazko eremuan kokatu eta gizarte-eraikuntza jakin batzuk zalantzan jartzetik abiatzen direla.

Arte Garaikidearen osasunari dagokionez ere, gertutasun handia dago erantzunetan. Denek bereizten dute artearen sistema artisten ekarpenetatik. Horrela, jarduera artistikoa osasun-egoera on batekin erlazionatzen bada, posizio kritikoetatik lan egiten duten artistak daudelako izango da. Artearen sistema, aldiz, oraindik ere batez ere gizonek gidatutako neokapitalismo arauemaile, zuri, arrazista eta kolonial baten zorduna dela diote (Sra. Polaroiska), komunikabideek bultzatu eta zabaldutako arrakastaren ideia komertzialean oinarritzen dela (López Cuenca).

Espazio eta eskainitako baliabideei dagokienez, artisten arteko adostasuna erabatekoa da. Zalantzarik gabe, ez dago nahikorik. Hori hobetzeko eginbeharrak zehaztu beharko liratekeela diote artistek, hala nola artisten eta erakundeen arteko hartu-emanak hobetu, nazioartekotzea bultzatu (Txuspo Poyo), artearen mundua eta merkatuaren mundua desidentifikatu, esperimentazioaren eremuan mugitzen diren praktikak bultzatu, ados ez egotea txalotu (López Cuenca), etab. Funtsean, politika kulturalak artisten beharretara egokitzea defendatzen da.

Azkenik, Arte Ederren fakultate batean trebatzeko interesari buruzko galderari dagokionez, elkarrizketatutako artisten artean, erdiek ikasi dute Arte Ederren fakultate batean eta beste erdiek ez. Kasualitatez gertatu da hori, nahita bilatu ez duguna. Arte Ederren fakultateetan trebatu direnek azpimarratzen dute arte-ikasketek antzerako kezka konpartitzen dituzten pertsonekin elkartzeko eskaintzen duten aukera, afekziozko loturak sortzeko leku apropos kontsideratzen da arte-fakultatea. Era berean, irakaskuntza/ikaskuntza prozesuko kideen arteko harremanetan ikasketa-aldiaz harago sortzen den jarraitutasunaren garrantzia aipatzen da. Edonola ere, garatutako curriculum akademikoen balioa zalantzan jarrita, artista gehienek adierazi dute beren lanean hainbat diziplinako jakintzak gurutzatzen direla. Horregatik, laburbilduz, beharrezko kontsideratzen dute Arte Ederren fakultatean artea ulertzeko eta praktikatzeko modu

pertsonalagoak garatzea, fakultatea artearen uniformetasun-ekoizle bat izan ez dadin. Baliabide urritzeko pertsonak ere zaindu beharko liratekeela aipatzen da zentzu berean (Ferrer). Azken batean, Humanitate ikasketen berariazko jakintzaren espazioaren defentsa bultzatzen da, nagusi diren diskurtso neoliberaleari aurre egingo dien pentsamendu kritiko bat garatzeko leku aproposa izan beharko lukeelako fakultateak.

Amankomuneko kontu hauek aipatu eta gero, liburuaren mamiari helduko diogu. Horrela, bada, irakurleari gonbita egiten diogu BAN esperientziaren ondorio den liburu honetan gurekin batera murgiltzera eta eskuzabaltasun handiz idatzi diren erantzun eta eskutitzak irakurtzera. Beraz, jarraian, galdera zehatzen erantzunen ibilbidean murgilduko gara, zeina tarteka aipatutako eskutitzekin eta lan bakoitzaren inguruko irudi batekin lagunduko den.

Horrela, iruditzen zaigu argitalpen txiki hau baliabide egokia dela *Begiekin Aritu Nazazu* hitzaldi eta lantegietan suertatutakoa jasotzeko, eta aukeratuak izan diren artista eta proiektuek ezin hobeto jasotzen dituztela denboran zehar barreiatutako zenbait begirada.

ELKARRIZKETAK & ESKUTITZAK